



JON URBE / FOKU

«Dimentsio politikoa oso era zurrunean ulertu dugu»

Arantza Santesteban • Zinemagilea

Ikuspuntu jaialdiko Sail Ofizialean erakutsiko du bere lehen dokumental luzea: '918 gau'. Kartzelako bizipenaren kontakizun pertsonal bat da, geruza askokoa.

Ane Eslava

2007an atxilotu zuten Arantza Santesteban (Iruñea, 1979), eta ia hiru urte pasatu zituen espetxealdi prebentiboan. Orduan bizitakoarekiko «erdiko distantzia» hartuta, *918 gau* filmera (Txintxua Films) eraman du. Kartzelan zein ateratzean sentitutako krak txikiak erantzunak bilatzeko prozesuaren isla da lana. Bizipenaren konplexutasunari tokia eginez, filmak ohiko iruditeriatatik aldentzen du preso politikoa, ikuslea posizio jakin batera bideratu gabe. Doctisboa jaialdian estreinatu zuen, eta nazioarteko film onenaren saria jaso. Nafarroako Ikuspuntu jaialdian lehiatuko da.

Presoak izaten dituen gatazka ugari islatu dituzu: konplitzeko beharra, maila ez ematearen presioa, kanpokoarekiko arrotasuna... Irudikatu ohi dena baino bizipen konplexuagoa da?

Nire ustez, edozein bizipen bezala, konplexua izan daiteke. Baina hasi nintzen ikertzen espetxearen inguruan egindako zinema eta idatzitako literatura, ikusi nuen kartzelako kontakizuna oso parametro finkoetan egiten zela. Tesi nagusi bat aurkitu nuen: normalean preso politikoa oso babestua dago, politikoki beti da oso ziuurra, kartzelan gehiago politizatzen da... Nire bizipenak egiten zuten krak txikiak kontakizun horiekin, ze nik beste prozesu batzuk bizi izan nituen. Eta nire asmoa zen nire bizipena erakustea, jakinda beste asko daudela. Esango nuke pelikula dela norabide oso ezberdinetan mugitzen diren afektuen trama bat: ageri da intimitatearen beharra, kartzela zer den kanpokoari kontatzeko ezintasuna, barruan sortzen diren ahizpatasunak, baita egoera gatazkatuak ere, preso sozial eta politikoen arteko harremana...

Miresmenaren eta heroi gisa tratatua izatearen pisua ageri da. Beharrezkoa da lehen lerroko militante politikoen inguruko iruditeria berriak sortzea?

Nire kasuan, Joan da garatzen modu intuitiboan, asko joanda gorputzera. Ohartu naiz indar handiagor gorde ditudan pasarteak direla batez ere presoa edo militante politi-

«Urte batzuk pasatu behar izan dira pelikula egiteko desira izateko; bizitakoarekiko erdiko distantzia aurkitu dut»

koa humanizatzen duten gauzak. Eta uste dut beharra dagoela kontakizun pertsonal horiei bide emateko: bizipenei, harremanei, bame gatazkei. Horrek humanizatzen du militantea, eta aldentzen du na gusitzen diren iruditeria edo este-reotipo idealizatuetatik. Horrantz egin dut nik balantza.

Rosa Luxemburgen kartzelako gutunetako esaldi bat eraman duzu filmera: «Nire bihotza enarena da nire kamaradena baino gehiago». Joratu dituzun gai asko laburbiltzen ditu.

Bai. Batzuetan, beste norbaiten hitzekin lortzen duzu gertatzen ari zaizun zerbaiti hitzak jartzea. Rosa Luxemburgen kartzelako gutunak oso ederrak dira, eta aurkitu nuen esaldi hori, sentazio hori izan nuen. Uste dut esaldiak ardazten duela pelikula, ardaizu ahal bada zerbaitetan.

Espetxeko oroitzapen zehatz asko daude pelikulan. Gogorra izan da memoria ariketa egitea?

Uste dut pelikula egin ahal izan dudala denbora bat pasatu denetan; urte batzuk pasatu behar izan dira nik pelikula egiteko desira sentitzeko. Hau egiteko ezin nintzen egon oso gertu kontatzen dudanetik, ezta oso urrutiti ere. Izan da erdiko distantzia hori aur-

kitzea, non ez bainengoen erabat afektatua. Eta, bestetik, pelikula egin dut sentitzen nuelako behar edo erantzukizun bat bizitakoari forma edo diskurtso bat emateko, ardura politikorekin. Bada galdera handi bat pelikularen atzean: ea posible den, kolektiboetako parte hartzaileek halako krisi, zailantza edo krak txikiak sentitzen dituztenean, horiei lekua egitea, eta nola egin daitekeen hori.

Beraz, halako kontakizunei bidea ematea lagungarria izan daiteke proiektu kolektiboetarako eredu berriak bilatzeko?

Pelikularen bokazioa ez da planteatzea metodo bat, baina ni pozik geldituko nintzateke baldin eta emango balu espazioaren bat halako gauzez hausnartu ahal izateko. Orain arte nazioartean erakutsi dugu, eta oso eztabaida politikak izan dira, beti norbaitek aurkitu duelako hari mutur bat gertatu zaion zerbait kontatzeko. Pelikula oso irekia da, ez du tesi bat defendatzen; espazioak, galderak irekitzen ditu.

Zeregin politiko oso biziak izaten diren bitartean, zalla izango da gauza hauetaz hausnartzea, zurrunbiloren barruan. Kartzela eta sortze prozesua izan dira kontzientzia hartzeko garaiak?

Bai. Kartzela bada geldituen oso handi bat norberaren bizitzan, are gehiago baldin bazatoz politikoki oso aktiboa den bizitza batekin. Aldatzen ditu denboraren eta espazioaren parametroak, eta norberak egiten du egokitzapena ahal duen moduan, baina egokitzapen prozesu bat dago ezinbestean. Eta normala da ordura arte egin ez diren galderak egitea. Nire kasuan hori dena ireki zen. Kartzelak badu kanpokoarekiko haustura handia: inpotentzia, ezintasuna esplikatzeko zer den kartzelako bizimodua... Eta galdera horiek kartzelan erantzutea zalla da; hafekin ateratzen zara kalera. Prozesu asko daude, eta nik erakusten dudana bat da.

Idealizazioarekiko apurketa ere pizgarria da galderak egiteko?

Nire kasuan, bai. Barruan zaudean konturatzen zara baliabide asko behar dituzula egoerari aurre egiteko. Ez dela bakarrik beharrezkoa ideologia bat, beste gaitasun batzuk ere behar direla, lotura dutenak ondokoarekin erlacionatzeko moduarekin: laguntasuna, pazientzia, kontraesanak, desirak... Eta horretaz arduratzea politikoa da. Dimentsio politikoa oso modu zurrunean ulertu dugu, eta askotan maskulinoan, eta ohartu nintzen askoz konplexuagoa zela. Idealizatuak nituen hainbat gauza kolokan jarri ziren,



eta zalantzak agertu ziren. Nik al-darrikatzen dut zalantza bat eramaten zaituena beste erantzun batzuk bilatzera. Prozesu gogorak izaten dira, batzuetan ez dozelako logika kolektiboekin bat, baina uste dut badirela subjektu politikoei pasatu beharreko faseak. Horietaz kargu egitea eta bide politikoan txertatzea da nik bizi izan dudana zerbait. Hortik aldarrikatzen dut krisia.

Zinema dokumentalak ematen duen askatasunak balio du toki ez horren zurrunetatik aritzeko?

Bai, baina uste dut fikzioak ere izan ditzakeela askatasun esparruak. Nik oso modu librean egin dut pelikula, ez dut izan mugarik. Hasieran egon nintzen bi urtez lanean kartzelatik atera nintzenean pilatutako artxiboarekin, baina oso artxibo sentsiblea da, eta nahi nuen zaindu, islatu dena ongi... Eta hortik ihes egitea erabaki nuen. Pelikulan artxiboa dago, baina egin ditut ihesaldiak ere.

«Espetxearen inguruko zineman eta literaturan, kartzelako kontakizuna oso parametro finkoetan egiten da»

Noraezean ibili naizenean nik egin izan ditudan ihesaldiak dira: joan naiz sexura, frantze egoeretara, basoetara eta isiltasunera...

Beraz, fikzioa edo ez-fikzioa baino gehiago, gakoa da zinema komertzialetik kanpo dagoela?

Hori da. Guk dokumental esperimentalean sartzen genuen, badielako forma artistiko bat. Baina bilatu dut oreka, nahi nuelako jendeak ulertzea.

Lanak sari batzuk jaso ditu dagoeneko, nazioartean. Pozik?

Oso pozik. Mundu mailako estreinaldia izan zen Doctisboan; halako zinema egiten dugunontzat erreferentziako festibala da, eta sari nagusia jasotzea izan zen oso-oso pozgarria. Gero Italiara joan ginen [Turingo Zinemaldira], eta nazioarteko dokumentalen sailean saria jasotzea sekulako poza izan zen. Eta Pontevedrako Novos Cinemasen (Galizia), gu geunden sekzioan oso pelikula potentek zuden, eta sariarekin itzultzea pozgarria izan zen.

Euskal Herriko estreinaldia ikuspuntutun izango da. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Iruñean hazi garen zinemagileontzat ikuspuntu oso inportantea izan da. Nik hor ezagutu ditut oso lagunak ditudan zinemagileak, nire pelikulan parte hartu dutenak. Euskal Herrian lehen aldiz han erakustea ziklo baten segida da, eta oso pozik jartzen nau.

